

EUSKERA ZALEAK

(ITZALDIA BILBAO'N 2004-19-24:OLAZAR'TAR MARTIN'EK)

GAIA:H'AREN ARAZOA ARG ETA GARBI. (LABURPENA)

1.- Izkuntza eta onen ortografia erreztuten:

- Erdia-aroan "H" asko baiña arau barik agertzen dira erderazko idazkietan.
- Latiniaren "H"ak kentzen:habuit-ovo-(Mio Cid.)
- "F"ren ordez "H"ak:facere-hacer.
- Ber-Jaiotzan barrero sartzen:habuit-hubo
- Frantzerak, euskerearen erdiak baiño ez daukaz.
- Italiarak lau "H" baiño ez (he,has,ha,han).Besteak oguztu egiten dira:Ghiesa .
- Euskeran :Iparraldean 30 000 inguruk oguzten dabe Egoaldean ez da oguzten eta 600 000 gara euskaldunak Kendu bear zanean,batuak sartu egin eban.

...

2.- Arana'tar Sabin'en ortografia:

- Arau nagusia eta zurra:Izki bakoitzak ikur bat, fonema bakoitzak grafema bat.
- Irarkola edo inprentetako arazoak:"l" marraduna ta "r" gangarduna.
- "ll" ta "ñ" euren lekuetan ondo dagoz.
- Errazoizkoa eta ikasteko oso erreza da ortografi ori!

...

3.- Zergaitik sartu zan "H" a?

Euskal kulturaren iraultzaile izan nai ebenak sartu eben:Alderdi politiku barri bat,kultura barri bat eta euskera barri bat nai ebelako.Eta ori HB edo ETA'ren bidetik:Idatzita dago;"H" a iraultzaren sinbolo plastikoa da.Saizarbitoria'ren Elerti-liburuan dagoala uste dot.

Ori argitzeko, jakin gerkeraz izki onek, "H" k, "eta" daukala izena.

Iparraldekoa zan Pierre Lafitte'k Euskaltzaindiaren batzarrean esan eban:"Ez zaieteze sartu iparraldeko euskeraren itxas-ontzira,ondatzera doan ontzia da-ta".

Gaiñera, zergaitik artu bear gendun, batua egiteko,600 000 "H" gabeko euskaldunek 30 000'ek baiño oguzten ez dabe "H" ori?

Batuaren aita dan Luis Mitxelena'k esan eban "H"aren indarra gazteak dirala "indar biologikoa", baiña orduko gazteak gaur ez dira gazte, eta non dago indar ori?

Sartu zan "H" ori sartzekoa ba'zan, eta zer ekarri dausku? Naste bildurgarria,ikasteko eragozpen aundia, idatzeko gaiztasuna ikargarria, eta onurarik ezer be ez.

...

4.- Erriak diñoana:

Orain urtebete-inguru ETB'ra dei egin eusten arazo au taldean aztertzeke. Joan nintzan eta an aurkitu nebazan Xabier Kintana,Xabier Madariaga eta Abel Muniategi ber-

tsolarien eratzaileak, beste batzuren artean.Agertu genduzan geure eritxiak eta,olakoetan oitura dan lez,ETB'k mikroa kalera atera eban itaunketa egiteko:Erritar guztiak agertu ziran "H"ren aurka eta gure zuzendariak argi esan euskun:"Erantzun orreikaz "Euskerazaintza" pozik egongo da. Egia zan.

Madariaga jaunak be esan eban ETA'k batuaren alde jokatu ebal.

...

5.- Ikastoletako arazoa:

Ez dakit konturatzen garan zenbat ordu eta egun bear diran "H" a non ipiñi ikasteko eta gaiñera betiko zalatzakaz geratzeko!

Gure ikastoletako ikasleak erreztasuna aurkitu bear dabe euskerea ikasten asten diranean, eta zelako sailtasuna aurkitzen daben!

Bizkaitarrok naiko gendun"s" ta "z"ren arazoa,beste bat gaiñeratzeko!

...

6.- "H"ak zergaitik irauten dau gaur?

Lenengo, Euskaltzaindiak ain gogor zaintzen daualako. Euskeran beste erru guztiak parkatzen dauz, baiña ez "H"rik ez erabiltea.Orregaitik galdu dodaz lau lan leku eta orregaitik ez da agertuko gure egutegi"takoa" 2005' rako,BBK'k laguntza kendu dauskulako.

Eta bigarren, Eusko Jaurlaritzak ain gogor eusten dauasalako. Eta emen jazoera bat esan bear dot:"H" a ezarteko sasoi aretan, 1975n. urte inguruan, Esku liburuak argitaratu genduzan ikastoletarako:Erlejiñokoak,Elertia Aita Santi'k idatzia,Lutelestia Elorrio'ko Iñigo Agirre'k eta Gregorio Arrien'ek idatzia eta beste batzuk.Esku-liburu oso egokiak, baiña "H" bakoak. Jaurlaritzak debekatu egin ebazan eta oraintsu ber-egokitzeko edo erreziklatzeko bota doguz 10 tone liburu Tolosa'n.

...

7.- Orain zer egin?

Bizkaierearen alde, baiña "H" a gogo aundi barik onartuta dauken erakundeak gogoratu bear doguz emen:Labayru,Mendebalde,Bizkai-Irratia,Lauaxeta ikastolea eta ebar. Oneikaz errez alkartu geintekaz EUSKERA ZAINZTA-EUSKERA ZALEAK, baiña "H" bagarik idaztea aske daukagula.

Guk argi ta garbi jarraitzen dogu "H"aren aurka eta badakigu egunen baten esango dabela:"Areixek euker errazoa"

Zein dan urtenbidea? "H" a kendu eta kito.Orretarako ez dago ezer be ikasi-bearrik!

OLAZAR'tar Martin'ek